

opusdei.org

Stop Utzarazpenak

Musika klasikoazko kontzertu bat arazo sozialen aldeko sentsibilizazioa bultzatzeko.

2013 Mai 29

Duela urte batzuez geroztik Egoitza Nagusiko egoiliarrek *Kontzertu solidario* bat antolatzen dugu hirian. Aurten Rafael Moneok eraikitako Kurtsaal auditoriumean egitea izan da gure erronka, Donostiako besaulki-aretorik handienez.

Kontzertu honek gizartea sentsibilizatzea bilatzen du, gure

inguruko pertsonen beharrez ongi jabetu dadin; izan ere, aurtengo irabazia Caritas-Gipuzkoak familia behartsuenen alde egiten duen lanari laguntzeko izan da, batez ere utzarazpenak eta langabeziak sortutako arazoengatik.

Musikene, Bilboko Koral Elkartea, Tecnun eta Caritas-Gipuzkoa-rekin batera, 1.200 lekuak zeharo betetzea lortu genuen. Donostiako gizartearen erantzun paregabeari esker, espero genuen baino irabazi handiagoa izan da aurtengoa.

Gertakizun honen aurretiko historia ezagutzeko, 2008. urteraino atzera egin behar dugu. Aieteko parrokian kontzertu bat antolatzen hasi ginen orduan, *Austrian Sinfoniettariek*, Somos 1 GKeri laguntzeko, Asiako haurren prostituzioaren aurka. Hurrengo urtean, orkestra berarekin eta Haydn-en 200 urteurrena zela, Victoria Eugenia antzokian

kontzertua egitea lortu genuen,
Donostiako antzoki entzutetsuenean,
IC-LI Ingenieros para la
CooperaciónGKE-ren alde.

Hiriko kultura-bizitzaren lehen
mailara heldu izanak adoretu
gintuen, eta hirugarren eta laugarren
urtean, Musikenek eta Zabalketa
GKE-k parte hartzen zutela ere,
Peruko “El Huambrillo” ostatuaren
alde, gazteek antolatu -Aiete E.N.-,
gazteek interpretatu -Musikene- eta
gazteen alde -El Huambrillo-
egindako kontzertua lortu genuen.

Aurten gure inguruneko behar
larrienen alde antolatzea erabaki
dugu. Denok dakizuen bezala,
pertsone askoren bizitza lausotzen
ari den arazo baten aurrean
aurkitzen gara, oinarrizko zerbaiti
dagokion arazo larria: sabaidun
etxerik ez izatea. Utzarazpenak
gertatzen direnean hauxe gertatzen
da. Egoera hau sufritzen ari diren

guztiei lagundu nahi genien eta, beraz, egoiliar guztiok martxan jarri ginen.

Proiektu honi ekiteko bagenuen aurreko lau edizioen esperientzia, eta Caritas-en laguntza ezin baliotsuagoa. Antolaketa eta diseinua, errealitate hauen aurrean inizatibadun eta sentibera diren unibertsitario gazteek eraman dute aurrera.

Azkenik, FORO UNIV 2013an kokatzen den Gizarte-ekimenezko Foruan ekitaldi honen plana aurkeztean, gizarte-agenteren partaidetza handiena duenarentzako Gizarte-Iniziatiba saria jaso genuen.

Pozik gaude, proiektu honek astindu egin baikaitu, gure errealitate pertsonala baino harantzago begirarazi baitigu, eta ez dugula bertako edota urrutiko inguruneko arazoetatik at bizi behar erakutsi digu. Azkeneko bost urteotan

iniziatiba honen bitartez lortu
ditugun emaitza bikainen ondoren,
halako eginkizun pozgarrian lanean
jarraitzeko asmoa baieztatzen dugu.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/stop-utzarazpenak/](https://opusdei.org/eu-es/article/stop-utzarazpenak/) (2026
Mar 25)